

Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren Instrukzioa, zeinean arautzen baita nola kenduko den epemuga eta epe administratiboen etendura, zeina Foru Aldundiak eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak osorik edo partzialki izapidetutako prozeduretan ezarri baita COVID-19 koronabirusak nazioartean eragindako osasun publikoko larrialdia dela eta.

Argitu nahi da noraino iristen diren epemuga eta epe administratiboen etendura kentzeari buruzko arauak, zeinak arautzen baitituzte, batetik, maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuak (9. eta 10. artikulua), zeinaren bidez luzatzen baita martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako alarma-egoera, zeina dekretu horrek deklaritzen baitu COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko, eta bestetik, lege-testu beraren xedapen indargabetzaile bakarrak, zeinak indargabetzen baititu martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarria, 2020ko ekainaren 4tik aurrerako ondorioekin, eta hirugarren xedapen gehigarria, 2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Azaldutakoaren harian, egoki ikusten da Instrukzio bat ematea, ahalik eta lasterrena zehaztu eta argitzeko zer neurritan kenduko den epemuga eta epe administratiboen etendura, zeina ezarri baitzen COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdia dela-eta, bai eta erantzuteko ere etendura kentzearen inguruan sortu litezkeen zalantza eta gorabehera berriei. Hori dela bide, **EBAZTEN DUT**

Lehenengoa. - «Epe administratiboen etendura kentzea».

Deklaratzen da 2020ko ekainaren 1etik aurrera etendura kenduko zaiela Foru Aldundiak eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak osorik edo partzialki izapidetutako prozeduren epemuga eta epeei, baldin eten badira oinarri harturik hirugarren xedapen gehigarrian xedatzen duena martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, zeinaren bidez osasun-larrialdia deklaritzen baita COVID-19a dela eta.

Horrek ez die eragingo tributazio-arloan ezartzen diren espezialitateei. Adibide gisa, baina aukerak agortu gabe, etendura kendu eta epe eta epemugak berrabiatzen dira honako hauetan:

- a) Dirulaguntzak emateko prozedurak.
- b) Dirulaguntzak eta beste diru-sarrera batzuk itzultzeko prozedurak
- c) Kalteak ordaintzeko diru-sarreraren prozedura



d) Zehapen-prozedurak

Bigarrena. - «Epeak zenbatzea administrazio-prozedurak berrabiatzean».

Eten diren administrazio-prozeduretan epeak berrabiaraztean, arau hauen arabera zenbatuko dira epeak:

- Egunetan zenbatutako epeei dagokienez, bete egingo da 30.2 artikuluan xedatzen duena urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio publikoen Administrazio rozedura Erkideari buruzkoak.
- Hiletan zenbatutako epeei dagokienez, eta 537/2020 Errege Dekretuan aurreikuspen zehatzik ez dagoenez, aplikatuko da urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio publikoen Administrazio rozedura Erkideari buruzkoak, egunetan arritako epeetarako ezartzen duen arau orokorra, 30.2 artikuluan, zeinean ezartzen baita epeak egun baliodunetan zenbatuko direla.
- Epeen kontaketa 2020ko ekainaren 1ean berrabiatzen da, eta ez osasun-larrialdiaren deklarazioa amaitu eta hurrengo egun baliodunean.

Hirugarrena. - «Etendura kentzea kontratazio publikoko prozeduretan».

Kontuan izanik zer xedatzen duen zortzigarren xedapen gehigarrian maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuak, zeinaren bidez onesten baitira kultur sektorearentzako laguntza-neurriak eta COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko tributazio-neurriak, erabaki da epemuga eta epeen etendura kentzea sektore publikoaren entitateek sustatzen dituzten kontratazio-prozeduretan, oinarri harturik 3. artikuluan adierazten duena sektore publikoko Kontratuen azaroaren 1eko 9/2017 Legeak, zeinak Espainiako ordenamendu uridikora transposatzen baititu Europako parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak, baldin eta prozeduron tramitazioa bide elektronikoz egiten bada.



Aintzat harturik 9. artikuluan xedatzen duena maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuak, zeinaren bidez luzatzen baita martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako alarma-egoera, kendu egiten da bide elektronikoz tramitatzen ez diren gainerako kontratazio-prozeduren etendura.

Kontratazio arloko errekurtsio bereziari, berriz, ez zaio aplikagarri 537/2020 Errege Dekretuak erregulatutako epeen etendura kentzeko manua, zeren eta, kontuan harturik zer xedatzen duen 11/2020 Errege Lege Dekretuak zortzigarren xedapen gehigarriko 3. apartatuan, zeina sartu baitzuen 15/2020 Errege Lege Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarriak, errekurtsio bereziko prozedurak ez baitira etentzat o, eta, beraz, arraitu dute zenbatuak izaten sektore publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean ezarritako terminoetan.

Laugarrena. - «Epe administratiboen etendura ez kentzea tributazio-eremuari».

Tributu-izaera ez duten errekurtsio publikoei, bestalde, ez zaie aplikatuko Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan tributazio-sarreretakoko ezarri eta araututakoa.